


VILLA CHELINES-ARGITXU
D MAILA**ARBÓS MUSIKARIAREN PASEALEKUA 1**
ZUBIAURRE PASEALEKUA 13

Luis Elizalde, 1920

Deskribapena

Villak oinplano errektangularra du, eta profilean, berriz, beheko solairua, lehen solairua eta teilatupeko bigarrena ditu. Plataforma baten gainean dagoela, horretako murruek altuera handi samarra ematen diote pasealekuarekiko, eta halako garrantzi bat ere badute bai fatxadan bai oinezkoentzako sarbidearen eraikuntzan. Gauzarik bereziena horma piko jokoa da, arrapala-txapitula bat baitago bien artean, eta estalkien mugimendu ona lortzen baitute geometria simple batetik abiatuta. Alde batetik alboko horma pikoa, eraikinaren sekzioari dagokiona, egokitu egiten zaio partzela honek, bidegurutze baten aurreko muturra izaki, duen albo ikuspegiari. Eta fatxada nagusian zabalera desberdineko bi horma piko gurutzatzen dira; horietako batek itxitura hegaldunak dauzka, mentsula gaineko murru irtenekin batera. Horien azpialdean izaera desberdineko elementuak daude elkarrekin, esaterako arku erdizirkular eta eliptikoak, puru formako zutabeak, eta bay window-ak, aurrealdean bata eta alboan bestea. Burdin lan klasizistako balkoia ere badauka, eta zurezko hiru jabloiren gaineko hegala sarrerako atea eta horren ezkerreko leihoa estaltzeko. Neotudor eta neoeuskalduneko detaileak konbinatzen dira.

D mailako babes erregimen espezifikoak

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: atzeko fatxadan gaineratutako gorputzak.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harrizko elementuak, zurezkoak, bilbadurak eta estalkiak. Plataformako murrua.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.